



Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

bizi ezazu

MED

Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 27

Urtea/Año 2014

Abendua/Diciembre

GOGORATZEKOAK

Abendua beti da hilabete berezia, askok gogokoen dituzten oporrak gertu daudelako. Gogoratu 19a izango dela eskolak amaituko ditugun eguna. Urtarrilaren 8an itzuliko gara.

“ANDRÉS ISASI” MUSIKA ESKOLA HIZKUNTZA BERRIA IKASI!

Hiruhilekoaren amaiera heltzear dago. Zuetako batzuk utzi behar izan gaitzue. Bateragarritasun arazoak ordutegiekin, denbora ere eskatzen dizuten beste jarduera batzuk... Seguru musika edo instrumenturen bat jotzen ikasi nahiko luketen pertsonak ezagutzen dituzuela. Gurekin ikastera animatu!

TXÖSTEN PEDAGÖGIKOA

Hilabete honetan helduko da hiruhilekoaren amaiera eta, Gabonetako entzunaldiekin batera, Gabonetaren lehen txosten pedagogikoa jasoko duzuen unea ere hurbiltzen ari da; honekin, ebaluazio-prozesuaren partaide egiten dizuegu.

Ebaluazioak izaera hezitzaile, orientatzaile eta autozuzentzailea dauka, irakaseta-ikaseta prozesua hobetzeko funtzio nagusiarekin; banan-banakakoa da, ikasle bakoitzaren garapena bilduz eta heziketa-prozesuarekin jarraitzeko jarraibideak markatuz; jarraia da, prozesu osoan zehar eginez orientatu edo aldatzeko eta azkenik integrala da, pertsona osoasunean kontsideratzen baitu. Hiruhileko bakoitzaren amaieran, tutoretza-bilerak egiten ditugu; hauetan, irakasleek gelan egunero ikusitakoa egiaztatzen dugu. Txosten pedagogikoak ebaluazio-prozesu honen islada izan nahi du, planteatutako helburuen betetze-maila eta ikasleek lortutako edukien jabetze-maila eta jarrera kuantifikatuz, letren bidezko kalifikazioa eta beharrezko azalpenen bidez.

ZUHAITZ SOLIDARIOA

Joan den azaroaren 19an, Santa Zezilia eguneko errezitaldian, datorren abenduaren 19ra arte piztuta izango den gure zuhaitz solidarioa piztu genuen.

Gabon hauetan, familia guztiek jai hauetako elikagai tipikoekin goza dezaten nahi dugu: turroiak, mazapanak, polboroiak, hestebeteak, etab. Lagun dugun Sortarazi GKEarekin partekatzen dugun nahi hau egíbihurtzera animatzen zaituztegu. Aurreko urteetan bezala, markak haustea espero dugu.



Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

bizi ezazu

MED

Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 27
Urtea/Año 2014
Abendua/Diciembre

VI NEGUKO BIDAIA

Hurrengo zenbakian izango duzue informazio gehiago. VI Neguko Bidaia irteera-puntuari dago; datorren urtarrilaren larunbat 18an hasiko da eta otsailaren 22ra arte luzatuko da. Gure kontzertu-solasaldiak arrakasta hutsa dira. Aurten ez dugu gonbidapenik izango. Ikasleentzako sarrerak izango ditugu 3 €ren truke. Zuen zain gaude!

HARI-TRESNEN DIDAKTIKOA

Musika eskolatik antolatutako kontzertu didaktikoen zikloaren barruan, datorren abenduaren 2an, hari-instrumentuen mintegiko kideok kontzertua prestatu dugu hari musika-tresnak ezagutarazteko asmoarekin. Bertan musika eskolan irakasgai dauden biolin, biola, txelo, kontabaxu eta gitarra ezagutu, ikusi eta entzuteko aukera paregabea izango duzue.

Ikasleentzat bereziki baina jende guztientzat zabaliak dagoen kontzertu honetan, estilo eta joera desberdinetako musika entzuteko parada izango duzue eta hau guztia zuei era erakargarrian aurkezteko, Ikerne Goikoetxea aktorearen laguntza izango dugu.

ARRASATEKO AKORDEOI LEHIAKETAK 2014

Datorren asteburuan, akordeoilariok Arrasatera joatea derrigorrezkoa dugu. Abenduaren 5etik 7ra herri osoan nazioarteko akordeoi-giro ezin hobez gozatu ahal izango dugu, Hauspozek (Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak), Arrasateko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera 1975etik antolatzen dituen nazioarteko Arrasateko Akordeoi Lehiaketekin. Hiru egun hauetan, mundu-mailan akordeoiaren inguruan dagoen hoberena entzuteko aukera edukiko dugu, "Arrasate Hiria" Nazioarteko XXII Lehiaketa, Gipuzkoako XXXV Lehiaketa eta Gipuzkoako XXVII Jaialdian. Aurten ere, gure Musika Eskolako akordeoilari batek hartuko du parte Jaialdian: Gorka Bordegarai. Larunbatean, arratsaldeko 16:40etan, Kulturaten, "C mailan" (15 urte arteko parte-hartzaileak).

Hemendik zuek egunen bat hara joatera gonbidatu nahi zaituztegu, akordeoia oso ondo entzuteko aukera berezia eta bakarra baita. Eta parte-hartzaileari, esperientziatz gozatu eta jotzen dakizun bezain ondo jo dezazula opa nahi dizugu.

Agenda

Abendua

Abenduaren 1ean: Klarinete-errezitaldia. Getxo Elkartegiko erabilera anitzeko gelan, 18:30ean.

Abenduaren 2an: Hari-tresnen kontzertu didaktikoa. 11:00etan Getxoko ikastetxeentzat. 17:45ean Zentroko ikasleentzat eta gainerako entzuleentzat. Eskolako Entzunaretoan.

Abenduaren 5, 6 eta 7an: Gorka Bordegarai akordeoi-ikaslearen parte-hartzea Arrasateko Nazioarteko Akordeoi Txapelketan.

Abenduaren 7an: "Andrés Isasi" Abesbatzaren Gabonetako errezitaldia Igeretxan 18:00etan.

Abenduaren 10ean: Piano-errezitaldia. Getxo Elkartegiko erabilera anitzeko gelan, 18:30ean.

Abenduaren 10ean: Ibar Abesbatzaren errezitaldia Bihotz Sakratuaren eguneko Egoitzan, 11:30ean.

Abenduaren 12an: Piano-errezitaldia. Getxo Elkartegiko erabilera anitzeko gelan, 18:30ean.

Abenduaren 12an: Flauta, tronpeta eta musikoterapia ikasleen errezitaldia. Musika Eskolako Entzunaretoan, 19:00etan.

Abenduaren 15ean: Ibar Abesbatzaren errezitaldia Bihotz Sakratuaren Egoitzan, 17:30ean.

Abenduaren 17an: Ibar eta "Andrés Isasi" Abesbatzen emanaldia Romoko Nagusien Etxean, 18:30ean.

Abenduaren 17an: Eskolako ikasleen Gabonetako errezitaldiak, Musika Eskolako Entzunaretoan, 18:15 eta 19:30ean.

Abenduaren 18an: Ibar Abesbatzaren errezitaldia Sanitasen Egoitzan, 18:30ean.

Abenduaren 18an: Eskolako ikasleen Gabonetako errezitaldiak, Musika Eskolako Entzunaretoan, 18:15 eta 19:30ean.

Abenduaren 19an: Eskolako ikasleen Gabonetako errezitaldia, Musika Eskolako Entzunaretoan, 19:30ean.

Abenduaren 24an: Txistu ikasleen parte-hartzea Algortako kaleetatik igaroko den Olentzeroren Kabalgatan.

Abenduaren 25ean: Txistu ikasleen kalejira Algortatik Udal Egoitzaraino, 11:30ean.

Abenduaren 28an: "Andrés Isasi" Abesbatzaren Meza abestia eta ondoko kontzertua Zenarruzako Kolegiatean, 12:00etan.